

Urretxu
2015 Martxoa
126.alea

# Kaixo

6.orrian
Aurrekontuak

2.orrian
Auzokonposta
4.orrian
Aterpea
10.orrian
Buzoietako ekarpenak
12.orrian
Parke estalia
14.orrian
Schwartzenbruck

# ✱ Auzo-konposta Urretxuren bihotzean



Denbora darama Urretxuko Udalak auzo-konposta bultzatzen, baina orain arte ekintza hau lursail propioa zuten herritarrengana mugatzen zen. Auzo-konpostaren abantailez jakitun, etxeetan egunean sortzen den zaborraren %40a materia organikoa da eta birzikla daitekeenez, herri erdian bizi diren herritarrei ere zabaldu nahi die aukera hau Udalak.

Horretarako, Eguneko Zentruaren lorategian auzoko-postarako gune bat egokitu du, inguruko auzotarrek euren hondakin organikoak bertan bota ditzaten. Batez ere alde zaharreko bizilagunei zuzendua dagoen ekimen hau proiektu pilotu bat izango da eta denborarekin gainerako auzoetara zabaltzea espero da.

Dagoeneko ekimenean parte hartuko duen herritar talde bat osatu da, baina inork gehiagok interesik balu, Udaletxean edo Sasietan dauka izena emateko aukera edo izan ditzakeen zalantzak uxatzeko bidea.

## Zer konposta daiteke? Bai

SUKALDETIK:

+ Fruta eta barazki gordinen hondarrak.
+ Fruta eta berdura egosiaren edo errearen hondarrak, inoiz ez frijituak.
+ Arrautza-oskol txikituak.
+ Egositako arrozak eta pastak.
+ Jogurt eta zuku iraungiak.
+ Kafe-hondar eta -iragazkiak.
+ Infusioen hondarrak eta poltsatxoak grapak kendu ostean.
+ Sukaldeko papera, paperezko ezpain-zapiak...
+ Kartoizko arrautza-ontziak, kartoi izurtua...
+ Aluminiozko paperaren kartoi-tutua, baita sukaldeko edo komuneko paperarena ere...
+ Ogia.
+ Gazta.
+ Haragia, arraina eta hezurrak.

LORATEGITIK:

+ Hostoak, loreak eta landare berde edo lehorrak.
+ Belarra.
+ Kimaketa-hondar txikituak.
+ Egur naturalaren errautsak eta zerrautsak.
+ Baratzeko uzta-hondarrak.
+ Fruta eroria.
+ Lastoa.

## Zer ez da konpostatzen? EZ

+ Olioa.
+ Etxeko animalien eta gizakien gorotzak.
+ Ikatz-errautsak.
+ Egur tratatuen errautsa eta zerrautsa.
+ Aldizkari irudikatuak edo papera koloretan inprimatua.
+ Erraztearen edo xurgagailuaren hondarrak.
+ Zigarroen iragazkiak.
+ Edozein material biodegradagarria eta organikoa ez bada.

## KEINU TXIKIEN GARRANTZIA

Ontziratu Zaitez ekimenari esker, 800 plastikozko poltsa aurreztu dira hilero Urretxun.

Keinu txikiek ere izugarrizko eragina izan dezaketela erakusten ari da azaroan martxan jarri zen «Ontziratu Zaitez!» kanpaina. Izan ere, arrandegi eta harategietara erosketak egitera joaterakoan bakoitzak bere ontzi edo tupperra eramanda, gutxi gora behera 800 paper eta plastikozko bilgarri aurreztu dira hilero Urretxun, honek dakartzan kostu eta hondakin murrizketekin.

Urretxuko Udala, Sasieta Mankomunitatea eta Kutxa Ekogunearen artean elkarlanean martxan jarri-tako ekimen hau Josetxo Insausti, Javier Ugarte, Eli eta Eroski harategien eta Izarra, Calvo eta Eroski arrandegien laguntza izaten ari da eta sei hilabetez, 30 euroko sari bat zozkatzen ari dira ontzi berrerabilgarria erabiltzen duten bezeroen artean.

Ekimen hau Gipuzkoako hainbat udalerritan martxan jarri zenetik, saltokietako jabeei proiektu honek abantailak besterik ez dizkie ematen. Izan ere, talde honen adostasun eta lankidetzarik gabe proiektuaren garapen egokia bermatzea oso zaila litzateke. Gaur egun tupperraren kanpaina Gipuzkoako 30 udalerritan dago martxan eta horretarako 70.000 ontzi berrerabilgarri banatu dira Ontziratu zaitez! lelopean.

Kanpainaren ondorioz, batez beste 26.000 erosketa egiten dira hilero ontzi berrerabilgarria erabiliz. Honek hilean 145 kg paper eta 15.600 plastikozko poltsen aurrezpena suposatu du.

KAIXO
UDAL ALDIZKARIA
126.alea

**Lege Gordailua:** SS/678/93
**Konposaketa eta diseinua:** Gattiken
**Erredakzioa:** Jon Ormazabal eta Gattiken
**Inprimaketa:** ANTZA **Tirada:** 3.300 Ale

KAIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
*KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.*

*Más información y traducciones/*informazio gehiago:
www.urretxubiziz.com/kaixo



# Un nuevo modelo para nuestros mayores

La baja natalidad y la cada vez mayor esperanza de vida han hecho que, de la mano del envejecimiento de la población, el bienestar y los cuidados de nuestros mayores se hayan convertido en uno de los retos más importantes de la sociedad actual.

Las nuevas demandas obligan a todas las instituciones a un salto que debe ser cuantitativo, cada vez habrá que disponer de más recursos, pero también cualitativo, adecuando los servicios a las verdaderas necesidades de las personas usuarias.

Ofrecer un servicio con capacidad de llegar a cada perfil de manera individualizada para los residentes es el ambicioso objetivo que se ha marcado el Centro de día Santa Barbara de Urretxu. Este cambio parte de una filosofía clara, con una máxima muy concreta. «No es el usuario el que debe adaptarse al centro, sino que debe ser el centro el que debe tener la capacidad de amoldarse a cada usuario».

Este nuevo modelo exige canales de comunicación transversales y un proceso de participación entre usuarios, trabajadores y familiares, un nuevo marco que tuvo su presentación pública en la jornada de puertas abiertas que tuvo lugar a mediados de junio. Como conocedoras de primera mano de las rutinas diarias y de las necesidades de los usuarios, las profesionales del centro adquieren una importancia especial en este nuevo modelo, pasando de ser meras ejecutoras de órdenes a adquirir un protagonismo especial en la toma de decisiones.

Al margen de ofrecer todos los cuidados que cada usuario requiera, el ocio es otro de los aspectos claves del bienestar personal, de ahí que el tiempo de asueto es otro de los pilares importantes y se ha comenzado a realizar diferentes salidas. Asimismo, se ha instalado un pequeño huerto en la terraza del que se encargan los propios usuarios y como experiencia novedosa, de la mano de la asociación «Aurrera Atera» también se ofrece una terapia asistida por animales, perros en este caso.

En cuanto al servicio de Ayuda Domiciliaria se refiere, se está analizando la posibilidad de implantar otros dos proyectos piloto, uno dirigido a la nutrición y a la adopción de hábitos saludables, y otro en torno a la rehabilitación cognitiva.

## Un Aterpe más abierto

Como otro punto de encuentro importante dentro de la gente mayor, la Junta de este local y el Ayuntamiento están realizando un trabajo en común con la firme intención de ampliar sus servicios y de abrir las puertas de este local a toda la ciudadanía.

Dentro de las actividades programadas para este año, destaca el curso de prevención de caídas, un taller que ofrece unas pautas básicas para evitar este tipo de accidentes que ha sido solicitado tras el éxito de pasada ediciones.

Por primera vez, se va a impartir un curso de nivel básico de euskara, con un método sencillo con el que adquirir un vocabulario básico y abrir una nueva vía de comunicación con, por ejemplo, sus nietos. Esta actividad se llevará a cabo los lunes, dentro del grupo de elaboración de la revista.

El taller de la memoria, también programado para los lunes, es otra de las actividades muy apreciadas por los usuarios del Aterpe.

Para ampliar información o inscribirse en estos cursos se puede acudir al propio Aterpe, llamar al **943725481**, en los Servicios Sociales del Ayuntamiento (**943038083**) o en el correo electrónico **gizadmi.ur@urretxu.eus**.

| Astelehena<br>*Lunes* | Asterartea<br>*Martes* | Asteazkena<br>*Miercoles* | Osteguna<br>*Jueves* | Ostirala<br>*Viernes* |
|---|---|---|---|---|
| Oroimena<br>*Memoria*<br>*(16:00-17:30)* | Psikomotrizidadea «A» + «B»<br>*Psicomotricidad «A» + «B»*<br>*(10:00-11:00)* | Psikomotrizidadea «A»<br>*Psicomotricidad «A»*<br>*(15:45-16:45)* | Psikomotrizidadea «C»<br>*Psicomotricidad «C»*<br>*(16:00-17:00)* | Dantza<br>*Bailes*<br>*(16:00-17:30)* |
| Aldizkaria<br>*Revista*<br>*(17:30-18:30)* | Psikomotrizidadea «C» + «D»<br>*Psicomotricidad «C» + «D»*<br>*(11:00-12:00)* | Psikomotrizidadea «B»<br>*Psicomotricidad «B»*<br>*(16:45-17:45)* | Psikomotrizidadea «D»<br>*Psicomotricidad «D»*<br>*(17:00-18:00)* | |
| | Esku-lanak<br>*Manualidades*<br>*(16:00-18:00)* | | | |

# *Presupuestos 2015

## 1.- LOS PASOS PARA ELABORAR Y APROBAR LAS CUENTAS MUNICIPALES

Respecto a los presupuestos del 2015, y siendo el último año de la presente legislatura, las y los representantes que conformaman el Equipo de Gobierno de Urretxu han mantenido el mismo proceso que en años anteriores, con el objetivo de profundizar en la directriz política de la actual legislatura.

Desde el principio se ha ido revindicado que, más allá de elaborar unas cuentas municipales eficaces, el estilo y las formas de trabajar y de gestión también deben de estar presentes en las cuentas, así como en el procedimiento mismo de su aprobación.

Cabe destacar que los presupuestos del 2015 han sido aprobados por el Pleno Municipal el 26/01/2015.

## PRESUPUESTO PARTICIPATIVO.

Es un tema que se ha elaborado y desarrollado en varias ocasiones en los últimos años. Ni qué decir tiene que año tras año que se ha ido trabajando para que el presupuesto se fuese acercando a la ciudadanía y hemos ido abriendo diferentes cauces a la participación con **transparencia** y **eficiencia**. Se han dispuesto mecanismos para que las y los urretxuarras puedan decidir directamente en varios capítulos y cantidades de los presupuestos, intentando mejorar cada año el proceso de participación.

## 2.- DATOS CUANTITATIVOS DEL PRESUPUESTO 2015

### EVOLUCIÓN REMANENTE TESORERÍA




Datos del 17/03/2015
- Remanente de Tesorería en Bruto: 996.364€
- Remanente de Tesorería en Neto: 742.126€

### EVOLUCIÓN PRESUPUESTO




### EVOLUCIÓN DE LA DEUDA FINANCIERA 2011-2015

| CONCEPTO | SALDO 2011/01/01 | SALDO 2014/12/31 | NUEVOS PRÉSTAMOS | AMORTIZACIÓN 2015 | SALDO FINAL 2015/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| Deuda contraida con entidades financieras | 3.500.000€ | 816.270,97€ (Kutxa) 1.330.824,9€ (Caja Rural) | 0€ | -425.000€ | 1.722.098€ |
| 2009 Fondo Foral deuda | 1.077.493,19€ | 0€ | - | | 0€ |
| DEUDA TOTAL | 4.951.425,22€ | 2.147.098,87€ | 0€ | | 1.722.098€ |

# 3.- PROYECTOS SURGIDOS A RAÍZ DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN

## 3.1.- INVERSIONES NO URBANÍSTICAS

| PROYECTOS | SUBVENCIÓN | COSTE «€» |
|---|---|---|
| Estudio de uso locales vacíos | NO | 37.000 |
| Comunicación de los servicios para la 3ª edad | NO | 2.000 |
| Kirola euskaraz | NO | 4.000 |
| Mercado Social | NO | 6.000 |
| Programas emancipación para gente joven | NO | 15.000 |
| Plan de acción Bertatik Bertara | NO | 9.000 |
| Estudio de conexión espacios verdes | NO | 10.000 |
| Auditoria económica 2011-2014 | NO | 18.000 |
| TOTAL | | 101.000€ |

## 3.1.- INVERSIONES URBANÍSTICAS

| PROYECTOS | SUBVENCIÓN | COSTE «€» |
|---|---|---|
| Plaza cubierta | SÍ | 83.000 |
| Irimo Paticipación ciudana | SÍ | 40.000 |
| Inversiones en Educación | SÍ | 100.000 |
| Adecuación accesibilidad | SÍ | 82.000 |
| Alumbrado público eficiente | SÍ | 60.000 |
| Reparación Parque Infatil de Pagoeta: 1ª Fase | SÍ | 21.000 |
| Nueva carpa | SÍ | 20.000 |
| Escenario Plaza Iparragirre | NO | 18.000 |
| Nueva Caldera Casa de Cultura | NO | 30.000 |
| Reparación de suelos y parques infantiles | NO | 12.000 |
| Adecuaciones Calles Iparragire | NO | 5.000 |
| Casa Social Aparizio | NO | 5.000 |
| S. Martin, S.Barbara y Mundo Mejor: Mejoras | NO | 4.000 |
| Bicicleta eléctrica | NO | 1.000 |
| TOTAL | | 461.000€ |

## 3.3.- CAMBIO SOCIAL

Tal y como hemos apuntado anteriormente, se ha tenido que hacer frente a grandes dificultades. Ante el ataque y la fragilidad de los derechos de las y los trabajadores, se ha realizado un arduo esfuerzo, garantizando el carácter público y blindando los convenios colectivos.

No se aceptan recortes en los servicios dirigidos a las personas que más lo necesitan. Se ha ido exigiendo los ingresos que tienen que llegar por parte de las instituciones de la CAV como las forales: En ayudas de emergencia como las AES o IMI no se tolera ningún tipo de retroceso.

Ante la grave situación actual, es imprescindible invertir y hacer un esfuerzo especial en este ámbito.

Como el año pasado, se han marcado las prioridades a conciencia, y para 2015 en el Equipo de Gobierno se ha apostado por el gasto social:

En un contexto y situación adversa como la actual, se seguirá garantizando la prestación de servicios municipales de base, especialmente dando cobijo a los colectivos más desfavorecidos.



Se mantiene uno de los compromisos adquiridos a principio de la legislatura; este año se han mantenido todas las ayudas y programas de carácter social y, cuando sea necesario, se incrementarán.

Junto a la Acción Social, el fomento del empleo en el municipio y en la comarca es una de las prioridades. Por todo ello, seguiremos apostando firmemente junto a otras administraciones e instituciones en favor de la creación de empleo.

En 2015 se sigue apostando por con el Plan del Fomento del empleo de UGGASA emprendido en 2011, trabajando en los ámbitos que estamos desarrollando.

Si fuese necesario, se dispone a incrementar la partida para el fomento del empleo tanto como fuese lo imprescindible.

## Vivienda

Ante la gravedad de los desahucios, se han puesto en marcha las acciones propuestas.

La política de vivienda se debe basar, por un lado, en rehabilitar las antiguas viviendas y, por otra parte, fomentar el alquiler de aquellas viviendas que estén vacías.

## Políticas de Igualdad

Este no es un ámbito más, sino una materia transversal que engloba a todos.

En el proceso a favor de la Igualdad de Género, los derechos de las mujeres también tendrán su espacio, y se llevan a cabo las acciones propuestas en el PLAN DE IGUALDAD de la comarca.

## Diversidad y Convivencia

Se seguirá profundizando en la creación de proyectos dirigidos a las personas de diversa procedencia. También se seguirá con los proyectos de integración de personas inmigrantes.

La defensa de todos los derechos de todas y cada una de las personas, independientemente de su procedencia. Es una directriz para trabajar e impulsar la Diversidad Cultural y las iniciativas como **Urretxun bizi gara.**

## Participación

Por último, y con la apuesta firme de seguir dando pasos en la senda de la democracia participativa, es necesario asignar una partida presupuestaria propia como en los años anteriores.

# Buzoietako ekarpenak



**MEZUA**

En el camino de la calderería U-Z al caserío Donardegi en la 3ª regata a la izquierda hay un televisor en el riachuelo. Está visible.

**ERANTZUNA**

Kaixo:

El personal de brigada ya ha retitado el televisión del lugar.

Un saludo.

## tu aportación es importante

**MEZUA**

¡Hola!

Sería conveniente habilitar una zona de carga y descarga en la plaza Iparragirre, no sólo para los comercios, los vecinos cada vez compramos más por internet y los repartidores no tienen donde parar siquiera.

Faltan dos pasos de cebra en el casco viejo: A la altura del “Navarro Jatetxea” para poder acceder a la Plaza y de la Plaza para poder acceder a los arcos. ¿Cómo si no podemos acceder los peatones a los arcos?

Eskerrik asko.

**ERANTZUNA**

Hola.

En respuesta a tus peticiones y después de consultar con el departamento de movilidad, se ve complicado habilitar una zona de carga y descarga, ya que existen problemas de accesibilidad. En cuanto a los pasos de cebra, las y los municipales ven con buenos ojos su implantación, por lo que accederemos al estudio de las localizaciones más convenientes.

Milesker.

**MEZUA**

Kaixo,

Abenduak 17 eta 18an antolatu zen “Jostailu Trukaketa Azoka” oso ideia ona iruditzen zait. Baina data aldatzeko proposamena egingo nuke, abendurako haurrek Olentzerori eskutitza idatzita daukate eta gurasoek dena erosita. Eta oraindik jostailu zaharrak erretiratzeko asmorik ez dute.

Aukera egongo litzateke udara aurretik edo ondoren (iralean) antolatzeko?

**ERANTZUNA**

Kaixo:

Lehenik eta behin, mila esker zure eskariagatik. Aipatzen duzun ekimena Urretxu eta Zumarragako kale hezitzaileek antolatzen dute, inguru irekia programaren baitan.

Ekimen oso interesgarria da eta diozun moduan, gero eta jende gehiagok agertzen du interesa ekintza honen inguruan. Berriki, Urretxuko Mahai Sozialak bultzatuta,

Trapera merkatu alternatiboa egin zen pasa den abenduaren 28an, eta bertan, beste produktu eta gailuekin batera, bigarren eskuko jostailuak saldu eta trukatzeko aukera izan zen. Kontuan izango dugu diozuna eta ÐTraperaÐ-ren formatuaren baitan ekingo diogu horrelako ekimenak gero eta zabalduagoak izaten.

# * Jolas gune bat estaltzeko prozesua jarriko da martxan herritarrek beharra agertu eta gero.




Aspaldikoa dira gure herrian gune estali baten beharra aldarrikatzen dituzten eskariak. Legegintzaldi honetan herritarren eskura jarritako partehartzerako baliabideek ere, lehenagotik jakina zen eskari hau ekarri dute: plaza bete aurrekontu prozesuan eta buzoietan behin eta berriz izan dugu gai hau aztergai.

Urretxun 0-12 urte bitarteko haurrek eta haien zaintzaileek eguraldi txarra egiten duenean elkartzeko eta jolas egiteko dituzten eragozpenek, pauso hau ematera eraman du Udal Gobernua.

Behar horri erantzuna emateko prozesuan, herritarrei parte hartzeko bidea zabaldu nahi die Udalak. Testuinguru horretan, **kalitatezko partaidetza prozesu xume bat** egitea proposatzen du, inplikatutako pertsonekin honako galderei erantzuna emateko helburuz:

* 0-12 urte bitarteko haur eta zaintzaileei zuzendutako gune estalia: **Zein ezaugarri izan behar ditu? Nolakoa izan behar du espazio horrek? Nolakoa irudikatzen dugu?**

* **Non? Zein da tokirik aproposena?**

Apirilaren 22an egingo da prozesu honetako lehen lan saioa. Udalak prozesua eta asmoak azalduko dizkie herritarrei, eta guztien artean neurtuko dute behar nagusia. Gune estaliari emango zaizkion erabilerak ere lan saio honetan aztertuko dira eta baita gunearen tamaina eta estalpearen modua ere.

Bigarren lan saio bat egingo da hilaren 29an, lehen saioko ondorioak jaso eta proiektu definitiboa zehazte aldera.

Azkenik lan saioetako ekarpenak jaso ondoren, eraikiko den proiektuaren berri emango zaie herritarrei.



# Senidetze-Harremana

**{** Urretxuko Udalak eta Schwartzenbruck herriak (Alemania) hitzarmen berri bat sinatu dute, orain arteko anai arteko harremana kualitatiboki garatuko duena.

Azken urteotan landu den harremantze kulturalaz haratago sozio-ekonomian elkar ezagutza landu da eta 70 euskal gaztek 3 urtez Alemanian euren formakuntzan sakontzeko aukera izango dute. Baviera erregioko enpresa desberdinetan lantzeko aukera izango dute formakuntzalanaldi alternatzia hori: Siemens, MAN, Audi,...

3 urte horietan, proiektuan parte hartzen duten pertsonek eskola teorikoak eta lanaldi praktikoak uztartuko dituzte arlo desberdinetan, izan ere, arlo askotariko langileak bilatzen dituzte, Bavieran (Alemania) dagoen lanesku faltari aurre egiteko.

Europa mailako Mobipro proiektuaren barruan garatuko da lankidetza hau eta 18 eta 27 urte bitarteko pertsonek hartu ahalko dute parte programan. Horiek aukeratzeko, hautagaiei elkarrizketak egingo dizkiete irailean. Hautagaiek DBH ikasketak izan behar dituzte gutxienez, eta lizentziatura bat edota ingeniaritza bat gehienez.

3 urteko proiektu honekin, Urretxuko eta oro har, Gipuzkoako gazteei euren formakuntzan sakontzeko aukera eman nahi zaie, krisi ekonomikoko egoera honetan euren baliabideak eta aukerak biderkatu ditzaten.

Aukeratuak izango diren pertsonek doako alemaniera eskolak jasoko dituzte hiru hilabetetan zehar eta honi dagokion hautaketa prozesua irailean hasiko du Udalak UGGASA eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, ondoren 2016ko irailean Alemaniara joan eta 3 urteko epeari hasiera emanez.

Elkarlan honen barruan, Alemaniako enpresen parte hartzea lortzeaz gain, Urola Garaiko enpresena ere lortu nahi da, Urretxuko Udalaren eta Uggasaren koordinaziopean. Honela, eskualdeko enpresek gazte horien formakuntzaren eta bilakaeraren berri jasoko dute, gerora eskualdeko enpresetan txertatzeko ateak irekiz.

## 24 urteko harremana, etorkizunera begira...

Bi herriek duten 24 urteko harremana maila bat gorago eramango du hitzarmen honek, maila sozio-kulturaletik sozioekonomikora hedatuz. Alfonso Cuesta urretxuarraren ekimenez jaio zen harremana, bi herrietako bizilagun eta ordezkariak elkar ezagutu eta lankidetzak sortzeko helburuz.

Elkarlana, 2005ean Urretxuko Udalak eginiko proposamenaren ildotik, hiru arlotan emango da: instituzioen artean, maila sozioekonomikoan eta maila soziokulturalean. Enpresak eta eragile sozioekonomikoak ere batuko dituzte proiektura. 2013an eginiko gogoeta batek berrindartu du egitasmo hau, eta 2014an, I. Lan Topaketak burutu ziren Schwartzenbrucken, azaroaren 23an eta 24an. Lanketari eskualde ikuspegia eman nahi izan zaio eta topaketa hauetan UGGASA garapen agentziako ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundikoak ere batu ziren. Era berean, Schwartzenbruckeko udal ordezkariei, Nürnbergeko Industria eta Merkataritza Ganberako kideak, Pyme eta artisautza arloetako ordezkariak, turismo arloko delegaritza bat eta Baviera eskualdeko Formakuntza Industrialaren arloko ordezkariak batu zaizkie.

Bi egun horietan, informazio, helburu eta interes trukaketa bat burutu zen bi eskualdeen artean eta honen ondorio izan da epe motzerako eta luzerako elkarlan konpromezuen sinaketa.

Lau izango dira elkarlanaren ardatzak: Ekonomia berdea, arlo soziosanitarioa, kultura/kirola eta giza baloreak. Lauak landuko dituzte proiektu amankomunekin.

Honekin guztiarekin, bi herrien eta eskualdeen arteko harremana sendotu nahi da; onura partekatuak sortzearekin batera. Ezagutza partekatuko da, aberastasun partekatua sortuz. Eragileen arteko sinergiak sustatuko eta sortuko dira, etorkizunerako perspektiba berriak sortuz, eta hau guztia, udalen koordinaziopean, dinamika propioak sortzen lagunduz.

Esperientzia trukaketa bat emango da, eskualdearen garapenari begira ikasteko helburuz; elkar ezagutzan sakonduko da, komunikazio kanal berriak eta iraunkorrak eraikiz. Azkenik, bi eskualdetako enpresen arteko harreman laboralak sortzea ere badu helburu gisa ekimen honek.

Maiatzaren 9an Europear Herrien eguna ospatzeko aitzakiapean Foru Aldundiak Urretxu aukeratu du ekimen bateratua gure herrian burutzeko eta Schwartzenbruck herriko ordezkariak gonbidatuak izan dira hartuemanean sakontzen joan eta gure herria eta herritarrak ezagutzeko aukera probesteko.



# orain DOAKO AuzoBus Zerbitzua

**info +ago:**
www.urretxu.eus
943 03 80 80

**Urretxu**ko udala

